

Atzoko kantuetaz orroitzean

Oxtikenean, Uztailaren 11an, "Kantu zahar ez eza-gunaren Eguna" ospatu behar eta... Senpertar kantu "zale" zonbait ikusi nahi izan ditugu... Guzien artean, suertak ereman gaitu Joana Gabarrus eta Graxi Jeannou-Bonneteri bisita baten egitera Joana Gabarrus, Mattin Irabola-Goya, "Matxin" izenordeaz ezagutua izan den, Senpertar Pertsulariaren alaba dugu. Hunen bere aitaren oroitzen goxoen erdian, beharba kantuetaz zerbait jakin ginukelakoan, bi hitz elgarretaratu ondoan, laster ohartu gira, zonbat, ezagutzen zuten guziek, maitagarritzat zaukaten... "Matxin".

Amotz Sorropilarat espotsatu zen Dominika Ermuarekin, 3 Haur altxatzeko..., bizpahiru behi, lur gutti bizitzeko, maiz behartua eskuin eta ezker lanean ibiltzea diru pixka baten sakelaratzeko... hala ere gizakitasunean, munduko aberatsena zitaken, ikusiz zonbat eta zonbatak lagun gisa zaukaten... Gerla haundia egin zuen buruen buru, nahiz eta, memento batez, bere izaitea gerizapean emaiten ahalko zuen. Hor ohartu baitzen gerlaren injuztizi onartezinari: "Izpiritu duenak errex du pentsatzen, gure diferentzia zonbatekoa den, haundiak ari dira ttipien manatzen, pobreaken indarrez galonez altxatzen, Ohorez haunditzen, mirailez beztitzen, diruaren biltzen, intresen doblatzen, gu, horien manutik elgar hiltzen".

Joana Gabarrusek, bere aitaz dauzkan mila oroitzenapenetan, huna anekdota edo ger-



Joana Gabarrus eta Graxi Bonnet-Jeannou elgar hizketan

talditxo bat. "Egun batez, lanerat aixexo joan zedin, neure ahizparekin nahi izan dion gure aitari irakutsi: Bizikleta gainean ibiltzen..., Biderat heltzean huna nun aurkitu zituen bi lagun... Akabo Bizikleta... behar izan ginuen etxerat bizikletarekin biak bakarrik itzuli...!"

Kantuaz mintzatzeko, "Matxin" ez zen kantaria bainan kantua laguntza beharrezkoa zukan bistan dena pertsuen botatzeko. Amotz Blankartegiko murruek, Senpereko paretetik mintzaten balakite...! Zer Lastima ez zauzkula bere hitzak ixkribuz bederen gure entzumenaraino bidaldu... Zer egin? Ez dugu bizia manatzen

ahal... Dena den Matxin sobera goizik joan zauku: 55 urtetan, 1935 eko Apirilaren 9an, lehen gerlaren tratutxaren (gazatua izana zen) gatik, eta, hemen, lur huntan gaur oraino, Joanari, bihotz xokoan, bere aitaren hain goizik joaitearen zauria, ez zaio kantitzen...

Graxi Jeannou-Bonnet, Ibarrun-Ottolonea, orai Bonneteia bezala ezagutzen dugunaren, ostatu-etxeko alaba dugu. Bera eta bere familiako guziak bezala, kantua- ren lehiaz ttiki ttikitik hunkitua, oroitzen da oraino, nola, nekato ttiki zelarik, memoria fiir-fiir, ikasten zitu- en, entzunez, Antton, bere aitaren kantu guziak, hau bi-

zar egiten ari zelarik... Oroitzen nola ostatuan, bere aitak ez zuen ere soportatzen ahal, hitzen ordeztu, "lalala" leloa aditzea... Oroitzen nola, San Jakobetan, Helbar- rungo bestetan, Mingoineko leihoan entzuten ziren, orduan hainbat maite ziren pertsuak... Ohartzen gira maiz, ximiko bat sortzen zaiola noiz nahi Graxiri, nostalgiak sortarazten duen ximiko horietarik bat eta iduri du kantuz ari dela bere baitan ixilik, beharba oraino bere haur denborako aireak beti bere baitan dituelakotz...



Auxtin Zamora
1999 / 06 / 26